


Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 2. go zbkia. 1994ko Uztaila. 100 pzta.

Kirola:
Telmo Deuneko
mutilak prest

Elkarrizketa:
Fermin Leiza:
"Hogarrian bailia
jartzia da nire
ilusioa".

Erreportaia:
Musika eskola



Juan Luis Blanco:

Epaiketaren zai

"Baleike" aldizkaria hilabetero aterako da kalera. Ale bakoitza 100 peztatan salduko dugu, baina harpidetzaren bitartez ere jaso dezakezu zure etxean. Harpidetzaren bitartez gainera merkeago aterako zaizu: 6 ale (urtea amaitu arte) 500 peztatik. Guretzat ere interesgarriagoa da azken sistema hau, horrela hobeto kontrolatuko bait dugu tiradaren neurria. Harpidedun egin nahi badezu, zatoz Foronda Kultur Etxera datu hauekin (edo txartelaren fotokopiarekin).

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Tlfno zenbakia:

Harpidetzaren dirua txartelarekin batera ekarri, mesedez.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Tren Geltokia.....	86 11 27
Polikiroldegia.....	86 20 21	Taxi geltokia.....	86 13 60
Gurutze gorria.....	86 10 93	Bake epaitegia.....	86 00 67
Udaletxea.....	86 02 50	Posta.....	86 15 00
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Udaltzaingoa.....	86 18 70
Osasun zentrua.....	86 08 62	Pilotalekua.....	86 21 72
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Ludoteka.....	14 32 64
Musika eskola.....	86 11 83		

BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

ARGITARATZAILEA

ZUMAIAKO GAZTE

BATZORDEA

LAN TALDEA

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Itziar Manzidor

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

PUBLIZITATEA

Amaia Korta

(860422)

KOLABORATZAILEAK

G.E.G., Natur taldea,

Miriam Romatet, Aitor Leiza

Imanol Manterola, A. Hormazuri

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

Tirada: 800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Zumaiako Udalak diruz lagunduriko aldizkaria



Editoriala	3
Iritzia: Oikiak estalitako frontoia behar du	4
Eztabaida: Kirol Portua	5
Elkarrizketa: Fermin Leiza	6
Ze berri? Espedienteak, Hauteskundeak, Zumaia Bizirik ...	9
Natura: Hegaztien migrazioak. Txakurren mikrotxipak	12
Erreportaia: Musika Eskola	15
Komikia	18
Antimilitarismoa: Juan Luis Blanco, epaiketaren zai	20
Sexualitatea: Sexua, drogak, eta ... frustrazioa	24
Izerdi patsetan: Arraunlariak prest!	26
Literatura: Insumiso bati	29
Kultur Agenda	30
Musikaz blai: El Inquilino Comunista. Maketak	32
Denborapasak	34
Merkatu txikia	35
Gutunak	35

Hitzaurrea

Bigarren intsumisioa epaitu behar digute herrian, eta honen aurrean gu ezin gera isilik geratu. Pozgarria da ikustea gero eta intsumisio gehiago ditugula Zumaian, gero eta gazte gehiagok uko egiten diola soldadutzari, erabaki honek suposatzen duen ondorioari aurre eginaz. Bainan aldi berean ulertezinezkoa da militarismoari ezetz esateagatik gazte hauek epaitu eta espetxeratuak izatea, gizarte hobe baten aldeko borroka egitea delittoa balitz bezala.

Kakiz jantziriko aldizkari hau, intsumisioei omenaldi bat izatea nahi degu. Intsumisioa gora doan hontan, guk intsumisio eredu berri bat proposatzen degu: Aldizkari intsumisioa! *Baleikek* ere uko egiten die ejerzitoei. INTSUMISIOA!

Abuztuko alea prestatzen hasiak gara jadanik. Bidali itzazu zure idatziak Foronda kultur etxera **Uztailak 14a** baino lehen eta argitaratuko ditugu.

OIKIAN ATERPEA BEHAR DUGU

Ibon Aizpurua

Aldizkari berri honek ematen digun aukera aprotxatuz eta halabeharrez Zumaiari gagozkio, Oikiaren kezka eta batez ere, gaur eguneko kezka nagusia, hau da, aterpearen beharra, Zumaiar guztiei azaldu nahi genieke.

Duela bederatzi urte, hau da, 1985eko irailean, Oikiako Herri-Batzordeak, beste eskakizun batzuen artean, frontoi estalia egiteko eskatzen zuen, beraz, behar hori ez da gaur goizekoa. Orduan, eskaria egin zenean, erabaki zen aterpe bat egiteko erarik onena frontoi estalia egitea zela, honela hainbat gauzetarako aprobeztatu baitaiteke.

Orain, bederatzi urte geroago, geure eskari hori tinko eusteko asmotan gara. Horretarako, alkatearekin elkartu ginen geure arrazoiak zein ziren azalduz, frontoi estali berria (eta ez zaharra estali) egin zezan. Arrazoiak ondorengoak dira:

a) Eguraldi txarra denean gure herriko haurrek ez dute ia jolaserako lehorrik. Toki bakarra eliz-ataria delarik, leku pribatua, txikia eta inolako erosotasunik gabea. Bestalde, beti da haserre bidea eliz-ataria jostaleku bezala hartzea, haurrek gauza onik ez baitute egiten, eta Elizak berea dena babesteko eskubide osoa baitu.

b) Beste edozein herritan (Oikia baino herri txikiagoak direnek) frontoi edo polikiroldegien beharra duten bezalaxe, gure Oikian ere

antolatzen diren ekintza edo aktibitate askotan aterpea behar beharrezkoa dugu. Adibidez: herrikoen arteko Sagardo Txapelketa, azken urteotan antolatzen den Palazko Pelota Txapelketa, festetako hainbat ekintza, eta beste ekintza batzuk, sarritan ezerezean geratu dira eguraldi txarra dela medio. Bestalde, hainbat kultur eta kirol ekintza aurrera ateratzea posible izango zen aterpea egon ezker.

Alkatearen erantzuna ez zen oso positiboa izan, argudiatuz Oikiako aterpea (frontoi estalia) baino lehentasun haundiagoa zuten gauzak bazeudela Zumaian (kirol portua,..) eta Oikian ez zuela honen beharrik ikusten; gainera esanaz, orain arte egon diren frontoi gehienak astakeri hutsak izan direla eta ez direla batere erabiltzen (ez zen gure Oikiakoa izango).

Arazo honi aurre egiteko soluzio bat lehengo frontoia estaltzea izan daiteke, baina gu honen aurka gaude, zeren:


-Orain Oikian dugun frontoiak horretarako eskeintzen dizkigun baldintzak ez dira batere egokiak (horma ahulak,...).

-Frontoia bera ere ez da batere ona. Nahiz eta orain dela hiru urte itxuraldatu zuten, oraindik okerra, txikia, labaina, etab. izaten jarraitzen du.

-Aterpea jarriaz ere, erdia gutxienez bustiko litzateke.

Orokorrean, urbanistikoki, bere ingurua gaizki geldituko litzateke frontoia estaliaz, eta estali litekeen ere zalantzan jartzen dugu, ondorioz, frontoi berria eskatuz.

Guzti honen ondoren gure arazoa argiago geratuko zenaren esperoan, agur bero bat Oikia aldetik.



Oraingo frontoia estaltzea ez omen da soluzio egokia.

KIROL PORTUA: TXANTAIA BATEN HISTORIA

Zumaiako HERRIBATASUNA

Azkenaldian Zumaiako portuan inguruan sortu diren proiektu eta asmoek eztabaida biziak eragiten dituzte herrian nahiz eta Zumaiako Alkatearen ustez kirol portuaren inguruan kontsentsua eta adostasuna nagusi izan.

Begibistakoa da portuaren ordenazioak izugarritzko garrantzia izan dezakeela gure herriaren etorkizuneari eta, ondorioz, sakon eta lasaitasunez aztertu beharko lirateke dauden aukera guztiak.

Zoritzarrez, portuaren erabilera eta ordenazioa finkatzeko aurrera doan prozesua erabat zuzendua eta aurrez erabakia dago; desinformazioa eta azpijokoa dira bai Eusko Jaurlaritzak, bai Zumaiako EAJ-PNV-kerabilitako tresna nagusiak. Hontaz ohartzeko nahikoa da orainartekoaren errepasoa egitea:

Azken hamarkadatan Zumaiako portuak izugarritzko beherakada jasan zuen eta urte askotan alde batera utzia izan da; ez du inolako laguntzarik jaso, ez azpiegiturak berritzeko ez eta mantenimentu soilerako ere. Egoera honen aurrean edozein zumaiar irrikitan zegoen portuari beharrezko bultzada emateko.

Bapatean, Eusko Jaurlaritzak Zumaiako portuaren sarrera egokitze (barra berria egiteko) eta portu barruaren erabilera bultzatzeko asmoak azaltzen ditu. Hasera batean portuaren erabilera finkatu gabe zegoela eta horri buruz herrian eztabaidatu eta proposamen ezberdinak onartuko zituztela azaldu bazuten ere, berehala argi geratu zen Eusko Jaurlaritzaren helburua Santixoko faduran kirol portua eraikitzea zela eta barra berriaren

eraikuntza kirol portua egitearen baldintzarekin soilik eramango zela aurrera.

Era berean, eta Eusko Jaurlaritzaren asmoak publikoak izan aurretik, Zumaiako EAJ-PNV ere lanean hasten da Rikardo Peña, kirol portuan defendatzaile sutsu eta herriko Alkatea denaren eskutik. Alde batetik Jaurlaritzaren kirol portu proiektua erabat apoiatuko duen UROKAI elkarteak sortzen da eta beste aldetik Udalak (Herri Batasunako zinegotzien aurkako botuekin) Prospektikerren "Zumaia-2005" prospekzio plana onartzen du etorkizunerako zein bide jorratu zehazteko, baina prospekzio lan honen helburu ezkutua kirol portuaren legitimazioa lortzea izan zen, zergatik nahastu ziren bestela datuak kirol portuaren aukera "lagunduz" ?. Gainera lan hortan garatu ziren atal garrantzitsuek (Industria garapena, ekonomia, kultura...) ez dute gaur egun inongo erabilerarik, alde batera utziak daude, benetan garrantzia zuena kirol portua famatzea baitzen.

Era hontan Eusko Jaurlaritzaren asmoak zumaiarrok izango balira bezala azaltzen dizkigute, eta portuan garatu daitezkeen beste ekimenak (Astilleroen garapena, untzi - konponketa eta montajerako azpiegiurak...) alde batera utziz kirol portua inposatzen digute aukera bakar bezala.

Gainera, zoritzarrez, kirol portua Eusko Jaurlaritzak Zumaiarako (eta kostalde guztirako) duen proiektuaren mutur bat besterik ez da. Gaur egun eztabaidatzen ari diren D.O.T.-ek (Directrices de Ordenación Territorial) diotenez Zumaiako industriguneetan

aldaketak egingo lirateke etxebizitzak eraikitzeke eta luxuzko etxeen eraikuntza ere bultzatuko litzateke, era hontan gure etorkizuna erabat turismoaren eta zerbitzu alorraren menpe geratuko litzatekeelarik.

Guzti hau gutxi balitz, kirol portua izugarritzko balio ekologikoaren gure batean eraiki nahi dute eta ez dira lotsatu ere egiten Santixoko fadura bizigabeko lokats gune bat dela diotenean.

Egoera honen aurrean Herri Batasuna Santixoko faduran eraiki nahi den kirol portuaren aurka azaltzen da erabat, horretarako bi arrazoi nagusi ditugularik:

- Arrazoi sozioekonomikoak Portuaren erabilera nagusia kirol portua izatea ezin dugu onartu, beste erabilera batzuk (untzigintza, konponketak, ...) askoz ere onuragarriagoak iruditzen baitzaizkigu Herri Batasunak ez dio turismoari bizkarra eman nahi baina, era berean, ez du gure herria turismoaren menpe ikusi nahi, eta D.O.T.-en arabera hori da inposatu nahi digutena.

- Arrazoi ekologikoak nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eta Zumaiako EAJ-PNV fadurak duen garrantzi ekologikoa ezkututzen saiatu, inguru giro departamentuak eta adituek argi azaldu dute Santixoko fadurak duen garrantzia. Ukaezina da padurek gaur egun izaki askorentzat eta batez ere hegaztientzat duten garrantzia.

Gure ustez asko dugu jokoan eta ezin dugu kirol portuak suposatzen duen txantailan erori. Alkateak aurkakoa badio ere oraingoz Jaurlaritzak inposatu nahi digun proiektua bakarrik eztabaidatu da.

FERMIN, HERRI LANETAN BETI FIN

" Hogarrian bailia jartzia da nere ilusiotako bat "

Fermin Leiza Jorejuria dugu, herri lan eta "enterradore" bezala aritzen zaigun zumaiar ezaguna. Bainan hontaz gain, badu izkutatu ezin digun pasio bat: soinua. Munduan zehar ibilia dugun gizon honek, badu bai zer kontatua.

Baleike

Fermin, nongoa zaitugu?

-Nafarroako Aranz herrian jaio nintzan, orain, euskeraz Arantzaizango da.

Zure soinuarenganako afizioa noiztik duzu?

-Nik, 10 edo 11 urte nituanian, soinu txikiakin hasi nintzan. Gero, ordea, medikua zan pianistia, eta harek aditu zuanian gure etxian nik soinua jotzen nuela, esan zun: "karanba! Hari egin behar zaio irakatsi solfeua". Eta hala, praka motxak gaztetan jastzen nitunetik, soinua jotzen hasi nintzan kanpuan. Jose Miguel Irazukin ikasten nun Irunen, bere andria gure auzokua zan da.

Iberdueron aritu omen zinen lanean.

-Bai, bai, bai; goizetan, lanan aurretikan, soinu jotzen xuabe-xuabe aritzen nintzan. Eta gero, Gipuzku guztin. Iberduero badakizu nola dan, batea eta bestea, eta soinuakin ere halaxe, batea ta bestea. Soldaduska Afrikan egin nuenian ere, eman nun



Altza-altza Fermin! Hori, hori, hori...

soinua eta hango teatro batian ere jo nun.

Nola ezagutu zenuen Eulali, "amor a primera vista" ala?

-Aaai!! Nik euki nuan istripu txiki bat eta horregatik. Klinikian, Martin Santos-en; bea anaia ikustea jun zan ta. Eta hola, hasi ginan elkarrekin.

Gero Alemaniara joan omen zinen, noiz?

-Eulalikin hasi ta belaxen. Nik Ameriketara joateko manta neukan, baina nola ez ziten abixatzen... Eta lagunak esan zian: "Hi, Fermin, nahi al dek Alemaniara jun, han ikasi ta gero

tallerrian ofeziua lortzeko?" Jun nintzan ta belaxen, Ameriketako karta! Hortako etorri egin behar, eta hilabete neukan juxtu-juxtu jun aurretik.

Ameriketara, nora joan zinen, zer asmorekin?

-Oregonea joan nintzan artzai bezala, hiru urte ta bi hilabete. Pentsau nun pixu baten jabe egin ber nula. Ta berriz soinuakin ere jarraitzeko asmuakin jun nintzan. Azkenian honea.

Zergaitik edo nola joan zinen Itziarrera bizitzera?

-Ni Ameriketatik etorritakuan, laister ezkondu ginan. Eta Eulalin



ERTZ
INFORMATIKA

- * KONPUTAGAILUAK
- * OFIZINAKO TRESNAK
- * AKADEMIA

Mendaro Marinela, 3 behea
Telefonoa: 143395 ZUMALA



* SUKALDERAKO ALTZARIAK
* ELEKTROGAILUAK
* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861694

baserrian jarri zuten merenderua, eta Eulali sukaldari bezala aritzen zan; ni gero, aguazil sartu nintzan lanian, eta askotan soinua ere jotzen nun merenderuan. Hala, lau seme-alaba eduki genitun eta halaxe!

"Soldaduska Afrikan egin nuenian ere, eman nun soinua eta hango teatro batian ere jo nun"

Eta gero, nolatan Zumaiari bizitzera? noiz?

-Duela hemezortzi urte. Gizon batek esan zian: "Hi, Zumaian enterradorea falta dek", eta familia aurrera ateratzeko, jun udaletxera eta papelak bete nitun. Seme-alabentzat ere hobeto, eskolako... Eta hala, herri lanetan eta enterradore bezala aritzen nintzan.

Baina hori ez al da lan gogorra?

-Ba, jende askoentzat bai. Han gauza asko ikusi behar izaten dia. Hasi nintzan kontadore lanetan eta orain jardinetan ere lan egiten det.

Nolatan etorri zineten Forondara bizitzera?

-Orduan, Kastor zeon alkate, eta nahi zutela bat konfiantzakua, eta geurekin akordau zian, ea nahi genuen eta, en fin! Horrela, hemen makina bat indakuak gea.

"Orquesta Camposanto"-k jarraitzen al du?

-Gukez ginun izen hori jarri, beste batek jarri zion. Arritokietan asko jotzen

ginulako eta nik kanposantuan lan egiten nulako. Baina orain, ez deulde bezala soinu jotzen. Nik ia egunero jotzen det pixkat soinua goizetan, baina kontzertutan eta jotzeko, asko jo ber da, segi in ber da.

Zer dituzu nahiago trikitixa edo pasadobleak?

-Denetarik. Baina pasadobliak jotzeko errazauak die, sueltuai beti eman behar zaio aire bixiagua. Nik denetik jotzen nun, hasi trikitixa, pasadoblia, tango, fox....

Zumaiako txoko guztiak ezagutuko dituzu dagoeneko, ez?

-Bai, hementxe aritzen gea alde

batetik bestea lanean eta horregatik oso ezagunak dia neretzat. Geo, poligono alde horta ta, ez naiz gehiegi juten. Izan ere hori aspaldian oso aldatuta dago, kanpoko jende asko etorri da izan ere ta...

Bazkari bat prestatzekotan zer nolako menua prestatuko zenuke?

-Prestatu baino gehio, jan egingo nuke. Nik gainea, ez da harrokeriz baina, oso emazte ona daukat sukalde kontutan. Izugarritzko pintxo goxuak egiten ditu, eta postriak zer esanik ez; edozeinek jango lituzke berak indako tarta ta pastelak!



Soinujole, enterradore, festa-zale, eta horrez gainera, herri-lanetan trebe.

Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20806 ZARAUTZ

Erribera, z/g
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAIA

**FRONTON
TABERNA**

E. Gurrutxaga plaza
Tel. 862172 ZUMAIA

goofy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

Zein da zure jaiegunetarako plana? Zer egitea duzu gustoko?

-Hemen ez da ezer asko egoten, ta plaza inguruko tabernetan buelta bat ematen det, eta gero musian ere jolasten det hogarrian. Nere ilusua da, hogarrian bailia jartzia; hori da nere asmua. Hamabostian behin edo, bailia jartzia hogarrian, eta jendia etorriko litzake ambientea.

Kuriosidade bezala, honako hau: Lapak gustatzen al zaizkizu?

-Bai, asko. Lapak eta beste edozer gauza. Danetik. Sanua naiz ni; txarragoa dagoena ere, pasa!

Zuretzat zein izango litzateke bizitzeko leku aproposa?

-Bueno, familia eta hemen dauzkat eta, hementxe. Baina ni, Itziarren ere gustora. Leku danetan naiz ni erraz moldatzen naizena.

Zumaia lehen edo orain?

-Orduan, Zumaia, ziaro atzeratua zeon. Dena zikina. Makina bat zikin garbitzen jardun nintzan ni. Gaur ere, zikina formatzen da, bai, baina diferente. Gaurkua hobeto.

Festak hurbiltzen ari dira eta, ospatzeko prest?

-Ze soinua jotzeko? Nahi genuke soinua jo kalia udaran, baina preparau in behar da ta! Denbora askorik ere ez dakat. Dantza egitia ere gustatzen zait, baina gehio soinua jotzia. Leno, bakarrik jotzen nun plazetan, baina orain lagun artian joko nuke. Dantza egitia ta hoiek gauza oso politak dia; baina dena pieza modernuak ere ez zaizkit gustatzen. Batzuk bai; baina lengo pieza zarrak! Hori, hori, hori! hoiek dia onak, "Princesa acordeón" eta holakuak. Zailaguak dia jotzeko, baina earrak. Nik hala ere, danetik jotzen det.



Kaleak alaitzeko beti prest.

**Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - IMPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081


20740 IRAETA - ZESTOA

ARKUPE

Okindegia
eta gosariak

Kale Nagusia, 2
ZUMAIA

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Bi udaltzain espedientaturik

Espedientaturiko bi udaltzainen kasua, azken aste hauetan zumaiarren ahotan degun gertaera bat da. Normala denez, horrelakoetan susmoak eta informazio okerrak nagusitzen dira egiaren gainetik, gauzak bere tokitik ateraz. Gertaeraren garrantziaz jabeturik, zuzenki inplikaturiko iturrietara jo degu egiaren bila.

Baleike

Hauxe da, laburki, benetan gertatu zena:

Azpeitiako epailearen erabakiz, zumaiako udaltzainei etxe batean sartzeko agindua eman zitzaizen, biolentzia erabiliz beharrezkoa balitz. Etxe horretara joan baino lehen, udaltzain guztiek biolentzia ez erabiltzeko erabakia hartu zuten, arazoa hitzeginez konpontzea akordatu.

Aipaturiko etxera iristean, honen jabeak ez zien uzten sartzeko, eta gainera jende gehiago zegoen bera apoiatuz. Nahiz eta udaltzainak gutxiago izan kopuruz, momentu batean, udaltzain buruak jende artean aurrera egiteko agindua eman zuen. Udaltzainek, ikusirik gutxiago zirela, eta aurretik hartutako akordioari helduz, ez zuten agindu hau bete.

Ertzaintzari deitu zitzaion. Udaltzainek eta ertzainak osatzen



Udaletxeko erabakiak kontu handiz hartu behar dira

zuten taldea handia zela ikusirik, etxeko jabeak eta bera apoiatuz zeudenak etxean sartzeko utzi zieten. Beraz, arazoa konpondu egin zen azkenean, hitzeginez, eta biolentziaren beharrik gabe.

Baina gauza ez zen honetan geratu. Guztia amaitu ondoren, udaltzain buruak txosten bat idazten du, bertan adieraziz bi udaltzainek ez zutela jendearen artean aurrera egiteko agindua bete. Alkateak txosten hori eta ertzaintzak osaturikoa irakurtzean, bi udaltzainei espediente zabaltzea erabakitzen du.

Bi udaltzainei espedientearen berri iristean, eta ikusirik udaltzain buruaren txostena ez dela osoa, beraien txostena idaztea erabakitzen dute. Bertan, gertatutako guztia

azaltzen dute, batez ere hau azpimarratuz: Aurretik udaltzain guztiek (udaltzain burua barne) biolentzia ez erabiltzeko hartutako akordioa.

Albiste hau idazten ari garen momentua dugun azken informazioaren arabera, bigarren txosten hau jaso ondoren alkatea bere erabakia kontsideratzen ari da, eta badirudi espedienteak kenduko dituela.

Bi udaltzainen iritzia

Ez da inola ere "Baleike" aldizkariaren asmoa, gertaera hau baloratzen hastea, eta are gutxiago polemika sortzea. Gure iritzia eman baino interesgarriagoa iruditu zaigu inplikaturiko udaltzainena jasotzea.

leize
TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA

ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

ZUMER
TABERNA

Erribera kalea, 2
Telefona: 861125
ZUMAIA

Beraiek zera adierazi nahi dute: Egia dela, udaltzain buruaren txostenean oinarriturik, alkatearen jokaerak legearen babesa duela. Baina egia da baita ere, espediente bat zabaldu baino lehen beste hainbat gauza izan behar direla kontutan. Hala nola, bi udaltzain hauek 1980tik ari direla lanean udaltzain bezala, eta urte guzti hauetan beren lana ongi betetzeaz gain, arazoak konpontzeko erarik egokiena hitzegitea dela ikasi dutela. Espediente bat ez da egunero zabaltzen, eta beraiekiko begirune falta bat bezala kontsideratzen dute horrelako gertaera batengatik beraiei espedientea zabaltzea. Espero dute beraien txostena irakurri ondoren, alkateak espedienteak baztertuko ditula..

Udaletxeko langileen erabakia

1994ko maiatzaren 23ko alkatetza dekretuaren bidez, Pello Enparan eta Julian Sanchez udaltzainei irekitako disziplinazko espedientea dela eta, udaletxeko biltzar aretoan, maiatzaren 26an, eguerdiko 12etan, udaleko langileen batzarra bildurik, zera erabaki da:

1.- Rikardo Peña jaunaren jarrera salatzea, espediente ireki baino lehen, bi udaltzainei, Pello eta Juliani, beren iritzia azaltzeko aukerarik eman ez dielako.

2.- Aldi berean, salatzea, espediente ireki aurretik beste bide batzuk ez urratzea, "adiskidetze ekintzak", elkarrizketak, bata eta besteen informazioa kontrastatzea eta abar, arazo honi beste irtenbide bat emanaz.

3.- Langileek hartutako erabakiak, Alkate berari eta Udaltzainei osatzen duen kontzejal bakoitzari jakinarazi eta udaletxeko iragarki taulan azaltzea.

4.- Espediente irekitako bi udaltzainei, batzarrean bildutako beren lankideen elkartasuna adieraztea.

Zumaia 1994ko maiatzaren 26an

Azken hauteskudeetako emaitzak

Azken hauteskudeen daturik aipagarriena, IU-k izan duen igoera nabarmena da: 89an izandako 19 botuetatik, oraingo 151etara pasa da. PP-k ere igoera ezagutu du 89ko hauteskundeekin konparatuz: 106-213. Bestalde, beste alderdi guztiek botu jeitsiera ezagutu dute. Hauek dira alderdi ezberdinen emaitzak. Aurrena 89ko emaitzak emango ditugu, aldamenean aurtengoak jarritz:

PNV-EAJ: 1058-1037


HB: 894-770

PSOE: 630-579

EA: 696-475

PP: 106-213

IU: 19-151



Amertze
Foto

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

NIKOL-ENE TABERNA

Amaiako plaza
ZUMAIA

Tfnoa: 861440

ZUMAIA ETA KOSTALDEA BIZIRIK

Ehundaka lagun kirol portuaren aurkako manifestapenean

Lehengo larunbatean, hilak 25ean, kirol portuaren aurkako manifestapena izan zen gure herrian eta antolatzaileak, Zumaia Bizirik taldekoak gustora agertu ziren jendearen erantzuna ikusita.

Baleike

Arratsaldeko zazpiretan zen hastekoa eta ordu horretarako hasi zen jendea arranpla aldera inguratzen. Hamar minutu beranduago abiatu zen manifestapena eta honek iraun zuen bitartean euria gogotik egin zuen. Amaiakoplazatik segi, Erribera, zubi txikitik aurrera, Aita Mari, Itsas kiroldegitik jarraitu eta Kopraian amaitu zen azkenean.

Euri zaparrada zela eta, jendea ahal zen tokian gordetzen zen bitartean, Zumaia Bizirik eta Itsas Enara taldeetako partaideek idatzi bat irakurri zuten megafoniatik, paduraren babesa aldarrikatzen zuena.

Zenbait musikariren laguntzarekin bertso eta kanta batzuk abestu ziren eta ondoren, nahi zuenak txitxarroa dastatzeko aukera izan zuen.

Eguna nola joan zen ikusirik, antolatzaileek balorazio oso baikorra egin zuten eta beraien kezka azaldu ondoren, larunbateko manifestapenak instituzioen jarrera aldatzeko balio izatea espero zutela adierazi ziguten.

Manifestapenean zehar banatu eta amaieran abestu ziren jarraian azaltzen dizkizugun bertso hauek.

KOSTALDEA BIZIRIK

Modako gauza dugu gaur kirol portua jauntxoek darabilte buruan sartua portua norentzako hori da kontua guk marisma nahi dugu ez basamortua

Hemen datoz Onassis eta Rockefeller salbatuta gerade portuari esker konturauko ginake hala ere laster turismo hutsarekin ez gerala ezer

Zumaia, Txingudi ta Motondo ere bai Bizkaian Abra, Txipio eta Urdaibai guztiak hiltzorian ez baditugu nahi kostaldea bizirik oihukatu lasai

EGUZKI



Manifestapeneko lema: "Batzen kirol portua, denon marisma" izan zen.

ITSASKI
SUPERMERKATUA
 Urumea kalea, z/g
 20750 ZUMAIA

M
MENDI - ONDO
 ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14
 20750 ZUMAIA

Telefonoak:
 860074 - 861569

HEGAZTIEN MIGRAZIOAK

Europako migrazio biderik garrantzitsuenak kantauri itsasertzetik igarotzen dena da.

Hegaztiak urtean zehar ugalketa lekuan igarotzen duten denboraren arabera sailkatzen dira. Hau kontutan izanik urte osoan zehar ugalketa lekuan direnak eta neguan leku hauetatik alde egiten dutenak bereiz daitezke.

Zumaia Natur Taldea


Jarraian agertzen den moduan nagusiki hiru talde bereizten dira:

1.- Sedentarioak, bere kabia egin ondoren leku hau inoiz uzten ez dutenak.

2.- Migratzaileak, negua leku epelagoetan igarotzeko kabia duten lekua uda bukaera edo udazkenaldera uzten dutenak.

3.- Paseko hegaztiak, norabide zehatzik eduki gabe, beren kabi lekuetatik ehundaka kilometrotara abiatzen direnak. Hegazti hauek, beren norabidea eta kabiak egiteko lekua eguraldiaren eta bidean lor dezaketen janariaren arabera hautatzen dute.

Goian aipatutako hiru hegazti talde hauek ez dituzte beti arau hauek jarraitzen. Belatz haundiak (*Falco peregrinus*) eta Belatz txikiak (*Falco tinnunculus*) adibidez, Europa iparraldean jarrera migratzailea izanik, espezie berberak Europa erdialdean, bizitzeko egoera hobegoak aurkitu izanagatik joera sedentarioa hartu dute.



Europako migrazio bideak

Migrazioak zergatik?

Hegazti batzuek zergatik migratzen duten jakitea ez da hain erraza, ornitologoen urte asko daramate arrazoi baten bila. Oraindik erantzun zehatzik aurkitu ez baldin badute ere, badirudi migratzeko arrazoirik nagusia janariaren arazoa dela. Badira beste faktore batzuk ere. Egunaren iraupen murrizketak, adibidez, hegaztien hormona oreka aldaketa bortitzak eragiten ditu. Horrela, udazkenean, egun argiaren murrizketak hegaztien organu sexualengan eragiten du, hegaztien migratze prozesuaren hasera markatuz.

Ornitologiak migratze prozesuaren zergatiari erantzunik zehatzena emateko asmoz, aspalditik

ari dira teknika ugari lantzen. Hauetatik zabalduena hegaztiei eratzun bat jartzea da, bertan hegaztiari buruzko datuak jartzen dira (non eratzundua izan den, noiz, hegaztiaren pisua...) horrela, hegaztiak zein migrazio bide erabili duen eta hegaztiari buruzko beste hainbat datu jakin daitezke. Teknologiararen erabilpena ere laguntza ikaragarria izan da migrazio kontrolak burutzerakoan, hegaztiei radar txiki batzuk ezarriz adibidez, berak egindako ibilbide osoaren berri izan dezakegu.

Migrazioen nondik norakoak

Urtean zehar bi migrazioaldi ematen dira. Bata udazkenean eta bestea udaberrian. Udazkenean (iraila, urria eta azaroa dira hilabeterik garrantzitsuenak), hegaztiak hegoalderantz abiatzen dira negua

S SUKALDEKO
ALTZARIAK
DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK
Basadi Auzategia, 10 behea
Telefonoa: 862051
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

EGOKI
ERLOJU DENDA
E. Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

EGUZKI
PUB
KOKTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

igarotzeko eguraldi epelagoaren bila. Udaberrian (apirila, maiatza eta ekaina) aldiz iparraldeko bidea hartzen dute.

Zumaiako paduran, kantauri osoko hegazti limikola migratzaileen dentsitate altuena ematen da.


Europako migrazio biderik garrantzitsuena (bai iparraldera edo hegoalderako bidean) kantauri itsasertzetik igarotzen dena da, Pirineo mendilerrotik barrena oso zaila izango litzaieke hegaztiei migratzea. Eragozpen geografiko honi aurre egiteko hegaztiei itsasertzeko bidea hartzen dute zuzenean Euskal Herria igaroz, eta bertako ekosistema ezberdinetan atseden-leku eta janari iturriak aurkituz.

Hegazti guztiak ez dira ekosistema berdinetan bizi eta bere migrazio bideetan espezie bakoitzak berari dagokion ekosistema aurkitu behar du. Kuku (*Cuculis canorus*) bat adibidez, ez da inoiz janari bila padura batetara joango, ez bait da berari dagokion ekosistema, Kulixka

(*Limosa limosa*) bat baso batetara joango ez den moduan.

Zumaiako ekosistemak

Zumaian zorionez, ekosistema ezberdinetan aberatsa izanik, ekosistema bakoitzari dagozkion hegazti motak ikusi daitezke. Zumaiako ekosistema garrantzitsuenak ondokoak ditugu: Santixo duna-padura, Beduako padura, Artadi eta Algorri Deba bitarteko Itsaslabarrak. Hauetatik, hegaztien migrazioarako garrantzitsuena padurak



Txirri frankolina (*pluvialis apricaria*)

dira, atseden leku lasaiak direlako eta janaria ugari dutelako.

Tristeia baldin bada ere, Gipuzkoako padurak desagertzeaz daude. Zumaiakoa azkenetariko bat izanik, bertan kantauri osoko hegazti limikola migratzaileen dentsitate altuena ematen da.

Zumaiako padura neurritz oso haundia ez denez, nahikoa da hegaztiak ikusteko kataleko arrunt batzuk eramatea, ez da bestelako tresna berezirik behar. Kontutan hartu hegaztiak ikusteko unerik egokienak egunsentia eta ilunabar-aldea direla eta anima zaitez zure herriko ingurugiroa ezagutzera!

Oraindik ere askok gure ingurunean kaioak besterik ez daudela pentsatzen dugu, eta Zumaiarrok behintzat hori gezurra dela ikusteko aukera ederra dute. Ez dezagun aukera hori galdu eta hurbil gaitezen migrazio garaian padurara.

GURE INGURUGIROA BABES DEZAGUN!!!

Oharra: Gai honi buruz, ed o beste edozeini buruz informazio gehiago nahi baduzu Zumaiako Natur Taldearengana jo.

Ondoren aurkezten dena gure herriko paduran urtero urtero ikusten diren hegaztien zerrenda duzue:

- Murgi erregea (*Podiceps cristatus*)
- Ekaitz txirrina (*Hydrobates pelagicus*) *
- Ubarroia (*Phalacrocorax carbo*)
- Ubarroi bulburina (*Phalacrocorax aristoteles*)
- Koartzatxo (*Egretta garzetta*)
- Koartza lepozuri (*Ardea cinerea*)
- Koartza gorria (*Ardea purpurea*)
- Mokozabala (*Platalea leucorodia*) *
- Amia moko (*Ciconia ciconia*)
- Antzarra (*Anser anser*)
- Basahatea (*Anas platyrhynchos*)
- Ahate beltza (*Melanitta nigra*)
- Ahate mokozabala (*Anas clypeata*)
- Eider ahatea (*Somateria mollissima*)
- Zertzeta (*Anas crecca*)
- Murgilaria (*Aythya ferina*)
- Arrano arrantzalea (*Pandion haliaetus*)
- Uroiloa (*Gallinula chloropus*)
- Uroilo nagusia (*Fulica atra*)
- Zankaluzea (*Himantopus himantopus*)
- Zankaluze mokogora (*Recurvirostra avosetta*)

- Txirritxo txikia (*Charadrius hiaticula*)
- Txirritxo hankabeltza (*Charadrius alexandrinus*)
- Txirri frankolina (*Pluvialis apricaria*)
- Urre txirri (*Pluvialis dominica*)**
- Txirri arrea (*Pluvialis squatarola*)
- Hegabera (*Vanellus vanellus*)
- Txirri lodia (*Calidris canutus*)
- Txirri iraultza (*Calidris alba*)
- Temmick-eko txirria (*Calidris temminckii*)
- Txirri kulixka (*Calidris minuta*)
- Txirri kurlinka (*Calidris ferruginea*)
- Txirri arrunta (*Calidris alpina*)
- Burrakalaria (*Philomachus pugnax*)
- Kulixka gorria (*Limosa lapponica*)
- Kulixka (*Limosa limosa*) *
- Kurlinka (*Numenius phaeopus*)
- Kurlinka errege (*Numenius arquata*)
- Zaldun iluna (*Tringa erythropus*)
- Zaldun txurizka (*Tringa nebularia*)
- Zalduna (*Tringa totanus*)
- Zalduntxo haundia (*Tringa ochropus*)

- Zalduntxo (*Tringa glareola*)*
- Zalduntxo txikia (*Tringa hypoleucos*)
- Harri iraultzaile (*Arenaria interpres*)
- Pasaera (*Burhinus oedicephalus*)
- Kakajanzle isatsmotza (*Stercorarius parasiticus*)
- Antxeta burubeltza (*Larus melanocephalus*)
- Antxeta mokogorri (*Larus ridibundus*)
- Kaio anahori (*Larus cachinnas*)
- Kaioa (*Larus argentatus*)
- Kaio iluna (*Larus fuscus*)
- Kaio beltza (*Larus marinus*)
- Itsasenera mokogorri (*Sterna caspia*)
- Txenada ankabeltza (*Sterna sandvicensis*)
- Txenada txikia (*Sterna albifrons*)
- Txenada (*Sterna hirundo*)
- Ross kaioa (*Rhodostethia rosea*) *

* **Hegazti hauek gure kostaldean ikustea oso zaila da.**

** **Urretxiri hau Euskal Herri osoan lehen aldiz ikusi da. Hegazti hau ez da europarra amerikarra baizik.**

TXAKURRENTZAKO MIKROTXIPA

1995ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa izango da.

Badirudi azkenean zientziak aurkitu duela txakurrak identifikatzeko sistema bat, hau da mikrotxiparen kasua. Mikrotxipak ez du inolako gaitzik sortzen, ez da mugitzen eta gainera oso erraz jartzen da.

BASADI albaitaritza klinika

Arroz ale baten tamainakoa dugu eta guk kanpotik aurkitu nahi ez dugun bitartean "hilik" dago.

Eta zein da aparatu honen funtzioa? gure txakur eta katuak identifikatzea. Honela ahal den eran, gaur egun gertatzen diren zokoratze, galerak eta lapurretak gutxitzea espero da.

Mikrotxipa lepoaren ezker aldean ipintzen da, normalak diren baino jeringilla lodiago batzuen bidez azal azpian sartuz.

Behin jarri ondoren txakur/katuak bere bizitza guztirako edukiko du mikrotxipa sartutako puntutan, eta esan liteke ia ezinezkoa dela bere galera.

Identifikazioa aurrera eramateko behar den tresna bakarra irakurgailu bat da; irakurgailu hauek albaitaritza klinika, udaltzaingo etaertzainen esku egongo dira.

Irakurgailu hauek mikrotxipa aurkitzean soinu eta zenbaki bat ematen dizkigute, zenbaki hau gure N.A.N. zenbakia bezala izango



Mikrotxipa txakur/katuen lepoaren ezker aldean ipintzen da.

lizateke eta bertatik aterako lirateke txakurraren ezaugarri guztiak, eta baita jabearenak ere.

Esan genezake hau dugula orain arte ezagutu direnetatik (txapak, tatuajeak, ebakiak...) sistemarik fidagarri eta segurua.

Jakinaren gainean jartzen zaituztegu, sistema hau 1995ko Urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa izango dela; era berean, badirudi, legearen arauera, fetxa hauetatik aurrera txakurrak identifikatu gabe edukitzeak zigorra ekarriko duela.

Guzti hau dela eta,

Gipuzkoako Foru Aldundiak AGVAL (Asociación Guipuzcoana de Veterinarios especialistas en Animales de Compañía)-en laguntzaz, kanpaina bat atera du aurrera.

Kanpaina hau martxan dagoen bitartean, mikrotxipa Gipuzkoako edozein albaitaritza klinika edo konsuldegitan ere jarriko da, prezioa ere murriztuz (1.800 pta. dena).

Guzti honekin, Foru Aldundiak batetik eta AGVAL-ek bestetik lortu nahi dugun helburua, ahalik eta txakur/katu gehien identifikatzea da, horrela lortuko bait dugu, zokoratze, galera eta lapurretak gutxitzea.

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 66
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA


BASADI
ALBAITARITZA
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
 - ALBAITARIAK -

LARRIALDIAK
 · 24 orduetan
 · Zeure etxean
 · Telef. 900-282828
 Abonatu zbkia: 247790

MUSIKA DOINUAK UBILLOSEN

Musika eskola eta patronatoa martxa onean dira jadanik

"Marianistas", "Mercedarios", "San Pedro" edo beste hainbat izenez ezagutzen dugun etxe honetan, hau da Ubillos jauregian, du bere kokagunea Zumaiako musika eskolak. Bertan musika ikasteko aukera zabala eskeintzen zaigu.

Estibalitz Esteibar

Azken 4-5 urteotan eman dira musika eskola sortzeko lehenengo urratsak. Irakasleek adierazi digutenez, "Zumaian musika ikasteko aukera lehen ere bazen; hala ere, udal musika banda eta txistulariez gain gainontzeko musika ikasketak irakasle partikularen gain erortzen ziren. Dinamika honekin moztu nahian eta musika ikasle eta irakasleen artean elkartasun bat lortu asmoz, musika eskolaren proiektua martxan jarri genuen. Beti ere udaletxeak utzitako lokalak erabiliz, hasera batean 80 ume izatetik gaur egun 300 matrikulatu izatera pasagara".

Musika eskeintza

Musika eskolaren sorrerak instrumentuen eskeintza zabaltzea ekarri du berarekin. "Orain, instrumentu bat ikasi nahi duen talde bat osatzen baldin bada irakasle bat ekartzeko aukera dugu. Gainera, lehen bakoitza bere aldetik genbiltzanean ezin zitekeena.

Horrela egun solfeoa, armonia, korala, pianoa, esku-soinua, txistua, flauta, saxofoia, tronboia, tronpeta, klarineta, bibolina, trikitixa, panderoa, bateria eta kitarra ikasteko aukera dugu. Gainera, datorren ikasturterako DULTZAINA ere sartu nahi da, beraz ea jendea animatzen den".

Eskeintza zabal honek herrian bertan ez dauden irakasle titulodunak kanpotik ekartzea eskatzen du. Orain guztira hamazazpi bat irakasle baldin badaude, hauetatik zazpi kanpotarrak dira, guztiak ere erdi edo goi mailako titulodunak.

Jendeak musika eskolaren aurrean nola erantzun duten galdetean zera eranstean dute, "orain arte ikasle kopurua urtez-urte igo egin da, aurtun

300 bat matrikulatu ditugu eta aurrera jotzea espero dugu. Zumaian beti izan da musikarako afizioa eta honetaz gain matrikula eta hileroko kuoten prezioa Gipuzkoako beste edozein zentutan baino merkeagoa izanik (matrikula: 2.500 pza., hileroko kuota 2.800-3300 artean) jendea etorriko dela uste dugu".

Hala ere diru kontuan badituzte beraien kezka, izan ere aurtun udalaren dirulaguntza jaso baso baldin badute ere, aurrerantzean auto-finantziazioan oinarritu beharko dira. Hori musika eskolaren garapenean oztopo bat gehiago izan daitekeenaren beldur dira. Hala eta guztiz, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat oraindik ere jasotzeko dutela eta, ez dituzte gauzak oso beltz jarri nahi.



Ikasleek era guztietako instrumentoak jotzen ikas dezakete



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
 * Praktika eta azterketak Azpeitian
 * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAI A



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAI A

Telefonoa: 862206



Pianujole trebeak bihurtzeko asmotan joaten dira batzuk Ubillos jauregira

Ubillos musika etxea

XVI. mendekoa den jauregi honen nagusiak udaletxeari baldintza batekin eskeini zion: irakaskuntzarako erabiltzea. Bertatik, "marianistak" eta beste hainbat pasa ondoren, orain udalak musika etxe izendatu du. Jauregia ederra izanik, musika etxe izateko egokitu gabe dago oraindik. Aurrera begira konpontzea espero den musika etxean itokinak dituzte, ez du inolako insonorizaziorik... Musika etxe batek bete beharko lituzkeen kondizioetatik urrun geratzen da.

Musika eskolak antolatutako ekintzak

Ikasturtean zehar zenbait ekintza antolatu dira. Trikitilariak

adibidez Santo Tomasetan, Santa Ageda egunean, eta estazio nahiz Aita Mari auzategiko festetan parte hartu dute, baita 93ko uda musikalean ere.

Gainera, ikasturtearen amaieran musika eskolako ikasle guztien partehartzearekin jaialdi bat burutzen dute, ikasleek urtean zehar egindakoa erakutsi eta aldi berean jende aurrean jotzen ohitu eta lotsa alde batera uzteko.

Udamusikalaren antolatzaileekin ere harremanetan daude, udaran burutzen diren musika tailerrak antolatzerakoan, Zumaiako musikazaleen interesen berri emanez. Aurten adibidez abuztuan jazz ikastaro bat antolatu da. Hamar eguneko ikastaroa izango da eta 3 irakasle italiarrek emango dute.

"Musikaren oinarria erakusten dugu; musika maite duenari ikasteko eta musikaz gozatzeko aukera ematen diogu"

Musika eskolaren filosofia

"Betidanik musikak izan duen zentzu akademikoa alde batera utzi nahi dugu. Lehen musika ikastea karrera bat egiten zen, azterketak, notak... Eskema hoiek utzi eta beste mentalitate baten atzetik goaz. Musikaren oinarria erakusten dugu. Musika maite duenari ikasteko eta musikaz gozatzeko aukera ematen diogu. Gero aurrera jarraitu nahi izan ezker, hau da, tituloa atera eta abar, orduan kanpora joan beharko da, Donostiara edo..."

"Bestalde, askotan kalean jo izan ezean alferrikakotzat jotzen da musika ikastea. Zertarako ikasi pianoa jotzen, gero ezin badezu kalean jo? Erraz entzuten den espresioa da. Musika eskolaren bitartez pentsamolde hau aldatu nahi dugu. Banda eta txistulariak baztertu gabe, gainontzeko musika adierazpen guztiak ezagutzeko aukera bat eman. Instrumentu berriak sartu, beste era bateko orkestak sortu, kuartetoak..."

Oraindik hasi bakarrik egin dira eta bide luzea dute aurrera begira. Hala ere, ilusio eta gogorik ez zaie falta eta horrek ate asko zabaltzen ditu.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201



Musika tailerraren emaitzetako bat degu FESTATXO taldea

Musika tailerra

Herrian musika lantzeko gogoarekin geunden batzuk elkartu ginen. Denetatik geunden, baxua edo klarineta ikasi nahi zuen jendea, saxoa ohe azpian zeukana eta berriz martxan jartzeko asmoarekin etorri zena, kitarrazaleak beraien ideiak konpartitzeko beharrean...

Musikan bide berriak jorratzeko asmoarekin elkartu ginen, eta halaxe sortu zen Musika tailerra, klarineta bat lortu hemendik, bateria bat eskatu hortik, ahal zen guztia osatu arte.

Gaur egun musika eskolan sortu

ditugu kitarra elektriko eta perkusio ikasketak, "Festatxo" taldea sortu da, Ubillos patronatoak ekipo bat erosi du alkiler merke batez erabiltzeko, beste taldeetan ere badaude partaide ohiak...

Ubillos musika patronatoan sartuta gaude, geure iritziak emateko, eta orain arte baztertuta edo alboratuta zeuden musikoak aukera dute adierazteko, eskaerak egiteko, ideiak emateko...

Guretzako, musika arloan zeregin handia dago, mota askotako musika lantzeko daude: klasikoa, elektronikoa,

jazz, rock, erdi arokoa, gure musika tradizionala eta abar; hutsune asko ikusten ditugu.

Honetarako, gure asmoen artean elkarte bat egitea dago, herrian nahi duten musiko guztientzako, gure artean antolatzeko eta laguntzeko derrigorrezkoa ikusten dugulako.

Badakizu beraz, musikoak bazara, izan nahi badezu edo lagundu nahi izan ezkerro, jar zaitez kontaktoan, ikusiko dugu zeregin!

Iñaxio Tolosa



BASUSTA
ERRETEGIA
M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA

BIZKOR
FOTOKOPIAK

- * Enkuadernaketak
- * Plastifikatzeak
- * Fax publikoa
- * Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120
ZUMAIA Fax: 143120






Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefona: 861485
Fax: 143143





At

EPAIKETA ATZERATUA

Juan Luis Blanco intsumisoa epaitu behar zuten hilaren 4ean

Hilabete honetan epaitu behar bazuten ere, azken orduko telegrama batez adierazi zaionez, epaiketa atzeratua izan da. Hau jakin aurretik solasaldi txiki bat antolatu genuen herrian epaitu berria dugun lehen intsumisoa den Ismael, eta Juan Luisen artean. Hortarako, Ismael jarri dugu galdezka, eta Juan Luis erantzuten. Ea ba zer ateratzen den elkarrizketa xeblere hontatik.

Gu Ez Goaz

Intsumiso izateagatik egiten diogu elkarrizketa hau, baina beste mila arrazoik ere bultzatuko gintzakete berarekin solasalditxo bat edukitzera. Ez da erreza normalean Juan Luisek ez du asko hitzegiten, bere antiojoen atzean izkututzen da bileretan edo jende asko dagoenean, ez zuen elkarrizketa honen protagonista izan nahi esateko gauza asko baditu ere (hala uste degu behintzat).

Epaiaketaren txanda iritsi zaio, laister toga beltza duen pertsona baten aurrean azaldu beharko ditu (edo teoriarik hala izan beharko) zein arrazoik bultzatuta egin duen deliktu hori: soldadutzara ez joatea. Epaiak ez dio kaso haundirik egingo, dena erabakita dago, antzerkian parte hartuko du eta sententziaren zai geratuko da 15 egun inguru. Guk bere jarrera azaltzea eskatu diogu eta



Gaztetatik soldaduskarik gabeko mundu bat amesten zuen

epaiaketan edukiko duena baino asti pixkat gehiago eman diogu bere ideiak adierazteko:

Nolabait hasteagatik, noiz bururatu zitzaizun kontzientzi objezioaren ideia, noiztik dezu zure burua kontzientzi eragozletzat?

Objezioaren ideia baino gehiago, 16 edo 17 urtekin amets bat nuen, egunen batean soldadutzara ez zela inor joango. Orduan ez zen oraindik objezio hitza gaur egun aina ezagutzen, intsumisioaren konturik ere ez zegoen, esan dudana bezala gehiago zen amets bat errealitatea baino.

Amets hau posible egin zitekela jakin zuen Juan Luisek bere bizitzaren garai batean. Noiz izan zen hori, noiz ikusi zenuen bideragarria zela honelako jarrera bat?

Bilbon ikasten ari nintzela (Arte Ederren ikasketak egin zituen Leioan), intsumiso batzuk ezagutu nituen, horrek planteatu zidan posible zela nik askotan amestutako ideia hori: soldadutzara ez joatea. Beraz asko kostatu bazitzaidan ere, soldaduzkara joateko momentua iritsi zitzaidanean (1990. urtean zozketatu zuten) 1991.eko martxoan, ez joatea erabaki nuen.

Jendeak zerbait egin nahi baldin badu egin dezala bere borondatez, ez behartuta.

JUARISTI JATETXEA

- * Arrainak eta haragiak aukeran
- * Eguneko menua
- * Jangela klimatizatua

Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853



KAFETEGIA

Itzurun kalea, z/g Telefonoa: 862124 20750 ZUMAIA

Erabakia zaila izan al zen?

Bai, azkenengo momentu arte ez neukan oso garbi. Intsumisioa ez zen oso ondo ezagutzen, bestalde bakarrik sentitzen zara, eta jarrera kolektiboak asko babesten dute.

Zergaitik intsumisioarako bidea eta ez Ordezko Zerbitzu Sozialarena?

Bueno arazoaren aurrean bi ikuspuntu ezberdinak dira, alde batetik armada onartzen dutenak eta honen ordezko zerbitzu bat egitearena eta bestetik armada onartzen ez dugunak.

Gainera intsumisioaren mugimendua oso majua iruditzen zait, laguntza emateko modurik onena izan daiteke, eta gustora sentitzen zara zeure kontzientziarekin.

Zigorrak, espetxeakoak nahiz besteak, ez dute ezer konpontzen, ea noiz konturatzen diren gizartea ez dagoela ados soldadutzarekin.

Badakigu nonelako erabakiak hartzerakoan aldeko eta aurkako gauzak egoten direla, egia da gainera garai hartan Zumaian ez zegoela honelako mobida gehiegirik eta hortan mugitzen zen jendeak ez zekien elkarren berri. Hala ere lagunak laguntza izan zuela kontatu digu, nahiz

eta batzuei gauzak asko azaldu behar izan zien uler zitzaten; etxean berriz (beste askok bezala) ez zen erreza izan, eta oraindik ere ez da erreza izango datorrena ikusita.

Galdera maltzurra egiteagatik, ez al diogu mota bateko edo besteko zerbitzu bat eman behar estatuari?

Nahikoa ematen diogu zergen bidez, eta beste mila gauzekin. Jendeak zerbait egin nahi baldin badu egin dezala bere borondatez, ez behartuta. Ez, ez zait iruditzen zerbitzu bat zor diogunik.

Baina armada ez al da beharrezkoa? Oraingoan erantzuna bapatekoa izan da, "Ez". Eta ez du gehiago argitu nahi izan. Guk gehiago xirikatzegatik, hurrengo hau bota diogu, eta armada profesionala?

Armada profesionala aurrengo irtenbide bat izan daiteke, guztiz desagertu baino lehen.

Ejerzitoaren desagerpenaren lehenbiziko urratsa bezala ikusten det.

Idea polita da, baina ez al da utopiko xamarra?

Bai. Zaila ikusten det epe motxean armadaren desagerpena, nik ez dudala ikusiko iruditzen zait, baino hortan gabiltza, saiatzeak ere balio du.

Gauza zehatzagoetara pasata, laister epaituko zaituzte, zer suposatzen du epaiketa batek?

Ezer baino lehen arazoak alde guztietan, delinkuentetzat hartzen zaituzte, nahiz eta zuk ondo jakin ez dela horrela, ez duzula ezer kaltegarririk egin. Bestalde arazo hauek etxean tentsioa sortzen dute eta zaila egiten da.

Beldurra?

Bai, noski (esperientzi bera pasa dugun batzuk oso ondo ulertzen dugu honelako erantzuna).



Juan Luis oso gustora sentitzen da bere kontzientziarekin

**LANDARE
LOREDENDA**
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAIA

**CORO
PRIETO**
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g
Telefona: 861322

julio curiel
GF
PELUJERO

Erribera kalea
Telefona: 862334

ZUMAIA

Agian gaztoegiak gara hurrengo galdera hau egiteko momentu hauetan baina hor doa, epaiketa ondoren gartzela?

Parre artean, epaiketa ondoren erantzungo duela esaten dit. Barre egiteak laguntzen du, baina ez da broma ezer egin ez duen pertsona batek hanka bat gartzelean ikustea.

Eta planteat?

Erabaki zaila da, ausarta, oso baliagarria konturatzeko intsumisioarena ez dela irtenbide pertsonala eta bai kolektiboa, jende hori benetan miresten dut.

Berak honelako jarrera bat hartuko lukeen galdatzerakoan, zera erantzun du:

Agian bakarrik ez, ikusi egin beharko nuke gartzelako egoera eta bertan dagoen taldeak zein erabaki hartzen duen, jarrera kolektiboa izan behar duela iruditzen zait.

Honen harian zigor berriak komentatzen hasten gara, dakizuen bezala kode penal berriak intsumisioentzat zigor alternatiboak jasotzen ditu (gidatzeko baimena ez ematea, administrazio publikoan lana egiteko atek ixtea, bekak e.a. ezin eskatzea,...) berak garbi utzi du bere erantzukerari galanta da, kartzela baino okerragoa. Gutxienez espetxeak teoriarik funtzio bat du, delinkuentea erreformatzea, baina beste hauek zigor hutsak dira, ez dit ulertzen. Beti egon da harreman bat delitoei eta zigorraren artean, hemen berriz ez da hori inolaz ere azaltzen. Honela ikusita soldadutza

bat betetzea bezalakotxea izango da, beste edozein motatako legehauste egiteagatik, bi hilabete soldaduskara bidaliko zaituzte.

Errepresioaren bidea ez da beraz konponbidea, orduan nondik etor daiteke arazoaren bukaera?

Ez, zigorrak, espetxeak nahiz besteak, ez dute ezer konpontzen, ea inoiz konturatzen diren gizarteak ez dagoela ados soldadutzarekin, hala ere zaila da ez baitzaie interesatzen, armadak oraindik botere izugarria du eta, hemen dago kokka. Nire ustez armada profesionala izan daiteke aldaketaren aurrenengo pausua, lehen esan dudun bezala.

Intsumisioaren kontu honek sor dezakeen jarrera soziala ikusita, komentatzen nion ea borroka baketsuak gauzak aldatzeko bide aproposak diren,

eta nerekin ados dago baietz pentsatzerakoan.

Arazo honen aurrean jarrera baketsua hartu degu eta gauzak aldatzen hasi dira.

Orduan ba, bide hauek jorratzea izango da gure lana hemen aurrera. Horietako bide bat arma negoziarioa salatzea izango litzateke, arazo honen inguruan zer pentsatzen duen galde egingo diogu. Baina honetako hantza da digari buruz hitzegiterakoan, bat negoziario bera eta bestea honen desagerpenak sortuko luken langabezia, biak alderatu egin behar ditugu eta aukeratu, ondo pentsatu zeinek duen garrantzi haundiagoa. Langabeziaren gogortasuna ordaintzen dugun defentsa zergekin leun daiteke, errekonbertsio famatu hoietako bat egin diru hoiek hortarako bideratuz.



Herriko ekintza ugarian parte hartzen du Juan Luisek

ONCE

JOXE MANUEL

Kupoi batzuk erosi eta ...

ZORTE ON !!

KABI
TABERNA - ZUMAIA

Xanti
ALTZARIAK

Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA



Bere arazoaren bukaeraz itxaropentsu agertu zaigu

Antimilitarismoaren borroka ez al da gehiegi zentratu intsumisioan beste bideak ahaztuz, adibidez bakerako hezkuntza edo objezio fiskala?

Bai, baina agian komunikabideen ondorioa ere izan daiteke, beraiek aukeratzen baitute zer den berria eta zer ez, objetore fiskalak gartzelara sartzen hasiz gero notizia bihurtuko litzateke eta orduan jendea konturatuko litzateke. Bestela intsumisioen artean jende gehiena kontzientea da beste arazo hauetaz.

Honekin ados egon arren, hemen berriz ere nere eritzia ematen diot esanez gazte askoren artean intsumisioa bakerako estrategia edo bide bat izatetik helburu bilakatu ez ote den bildur naizela, behar bada lehen urrats hau emandakoan gauzak aldatuko dira.

Badirudi jende guztia intsumisioaren alde dagoela, baina gero zerbait egitea berezko duenean, adibidez objezio fiskala, hipokrita xamarra ez al da horrelako gauza ximple bat ez egitea?

Postura errazena da, asko eskertuko genuke objezio fiskalaren bidez gizarte mugimendu honi laguntzea, eta egun batean armada profesionala desagertzen bada, bidea hau izango da.

Intsumisioarena ez da irtenbide pertsonala eta bai kolektiboa

Orduak aurrera jarraitzen dute, zurittoa eta sagarra aitu dira eta irratian Saldaren ahotsa entzuten degu ia hutsa dagoen tabernan, astelena da, baino gure elkarrizketa bere punturik beroerena ailegatu da, erantzunak gero eta luzeagoak dira, galderak gero eta zailagoak diren heinean, azkenik ausartzen naiz bakea definituko lukeen galdetzera.

Erantzunaren zailtasunaz ohartzen naiz, baina ez da ixiltzen: "Gauzak ez dira txuriak edo beltzak. Bakea biolentzia ez den gauza bat da, hala ere biolentzia graduak daude" botatzen du era espontaneo batean. Erantzun ona benetan. Beste galdera bat bururatzen zait aurrekoarekin harreman haundiegia ez badu ere. Zergaitik daude horrenbeste objetore eta intsumisio Euskal Herrian?

Mugimendu abertzalearekin loturaren bat dagoela dirudi. Kataluinan ere kopuru altua dago, baina ez det oso ondo ulertzen lotura hau. Beste arrazoi bat hemen arazo sozialekin sentsibilitate haundiagoa egotea ere izan daiteke.

Eta bukatzeko azaldu behar zuen galdera bat. Zein da antimilitarismoaren egoera Zumaian?

Lehen baino intsumisio gehiago dago, baina... honek itxaropen pixkat ematen du. Jendearen konpromisoaren zain gaude. Autokritika egiteko ordua ere bada, ez dugu lortu dinamika egoki bat herrian, gurea edo jendearena den errua ez dakit. Hala ere zure epaiketan herriaren erantzuna oso ona izan zen.

Egunarekin batera elkarrizketa bukatu dugu, asko hitzegin dugu eta Juan Luisi buruz hasieran esaten nuena pixkat aldatu behar dut, ez da horren zaila izan.

SEXUA, DROGAK, ETA... FRUSTRAZIOA

Drogen erabilerak sexu harremanetan, arazoak besterik ez ditu sortzen denborarekin.

Jende askok erabiltzen ditu mota ezberdineko drogak, harremanak izateko dituen zailtasunak gainditzeko, edo baita ere, sexu harreman hobekoak izateko asmoarekin. Hasierako emaitza ona izan daiteke; luzera aldiz, drogek arazo ugari sortzen dituzte.

Baleike

Izan ere, gorputza "entonatzeara" ligatzen hasi baino lehen, ohitura ezaguna degu. Badirudi horrela seguruago ikusten dugula geure burua, hitzak inspirazioz beterik barra-barra ateraz. Beldurra, lotsa eta estutasun guztiak alkoholaren ittotzen direla dirudi. Hori bakarrik balitz alkoholaren eragina, ez legoke arazorik. Baina gauza guztietan bezala, neurrian dago arazoa, eta droga kontutan badakigu oso zaila dela neurria hartzea. Askotan "entonatzeko" soilan hasten dena koma etilikoan amaitzen da, eta egoera horretan, egia esan, sexu harreman gutxi.

Gehiegi edateak eragin zuzena du gure gorputzean: Gizonezkoarengan, zakilaren tentetzea zailtzen du;



emakumearengan lubrikazio maila jeitsi-erazten du. Biengan, mila eragozpen jartzen dizkio orgasmoari. Zein da arazo honen zergaitia? Alkoholak nerbio sistemarengan du eraginik handiena, hauek nolabait esateko, erdi lokartzen dituelarik. Sexu organuek ez dute jasotzen neuronengandik behar adina exitazio,

eta ondorioz, gure saioa alperrikakoa bihurtzen da.

Baina eragin hauek momentukoak dira. Badaude beste ondorio larriago batzuk, alkoholaren menpe bizi direnengan sortzen direnak. Horrela, sexu hormonon kopuruak behera egiten du, eta sexu organuetan konponezinak diren arazo



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA

ZALLA TABERNA - ERRETEGIA

- * Plater konbinatuak
- * Otartekoak
- * OILASKO ERREAK
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA

asko sortu daitezke (deformazioak...). Kasu askotan sexu harremanak izateko ahalmena ere betirako galtzen da.

Beste drogen eragina

Ez da, hala ere, alkohola erabiltzen degun droga bakarra, nahiz eta zabalduena eta onartuena izan gure gizartean. Badaude beste hainbat droga, eta hauek ere beren eraginak sortzen dituzte. Ikus ditzagun hauetako batzuk.

Alkoholaren ondoren gehien erabiltzen diren drogak (tabakoa alde batera utziz), marihuana eta hatxisa dira. Hauek sortzen dituzten lehen eraginak hauexek dira: pertsona euforikoa sentiarazten dute, gorputza erlajatzeko laguntzen dute, eta nolabait, denboraren pertzepzioa galtzen da. Beraz, badirudi gorputza punttuan jartzen dutela sexu harremanak izateko. Baina ez gehiagorik; ez dute botere afrodisiakorik, ezta ere ahalmen sexuala handitzeko ahalmenik, batzuk gaizki uste duten bezala. Gainera, kasu honetan ere gehiegizko erabilpenak aurkako eraginak dakartza, hormonetan aldaketak sortuz, zakilaren tentetzea zailduz, eta emakumearengan hilekoaren zikloa aldatuz. Psikikoki ere eragina nabarmena da, sexu gogo neurri handi batean galdu egiten bait da.

Droga gogorrak

Beste maila bateko drogak aztertzen hasten bagera, ondorioak latzak izan daitezke ikusten dugu.

Heroina ez da kontsumitzen sexu harreman hobeagoak izateko asmoarekin, baizik eta beharragaitik. Hala ere, ondorioak nabariak dira: hormona kopurua izugarri jeitsi eta hainbat trastorno sortzen ditu. LSD, kokaina, eta anfetaminak berriz, helburu horrekin kontsumitzen dira askotan. Hiru hauek estimulazioa sortzen dute nerbio sistemarengan, hasieran behintzat exitazio sexuala handituz. Baina, beste droga guztiek bezala, denborarekin mila arazo sortzen dituzte, fisikoak zein psikikoak.

"Askotan, entonatzeko soilan hasten dena koma etilikoan amaitzen da, eta egoera horretan, egia esan, sexu harreman gutxi".

Esandakoaren ondorio bezala, zera esan dezakegu, drogen eraginak sexuarengan bi fase betetzen dituela: Hasieran, gorputza "entonatzen" laguntzen dute. Denborarekin berriz, ondorioak guztiz negatiboak dira, gure gorputzean hainbat arazo sortuz. Gainera, jakina da sarritan erabiltzen badira menpekotasuna sortzen dutela. Horrela, sexu harreman hobeagoak izateko asmo bat besterik ez zena, egoera kaotiko batean bihurtzen zaigu: sexu ahalmena galdu, ingurukoenganako harremanak hautsi, frustrazioa...

Aztertu beharko genuke baita

ere, zergaitik pertsona batzuk bultzatuak, behartuak sentitzen diren drogak erabiltzera sexu harremanak izan baino lehen. Ziurrenik gizarteak baduela bere errua, porrotaren mamua denok bait degu geure barnean erroturik.

Argi dago sexuaz gozatzeko ez dagoela drogen beharrik, eta presiorik gabeko sexualitatean dagoela gakoa drogen erabilpenarekin amaitzeko, neurri batean behintzat. Sexuaz gozatu nahi badezu, drogarik ez!

Esakerak

- "Emakume bat ez da pertsona, oilaskoa txoria ez den bezala" (Errusiako esatera)
- "Etxea emakumearen mundua; mundua gizonaren etxea". (Estonia)
- "Emakumea hiru aldiz aterako da etxetik: Bataiatzerakoan, ezkontzean, eta bere hileta denean". (Ingelesa)

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

20750 ZUMAIA



Basadi Auzategia, 10-A atzean

Telefonoa: 862228 ZUMAIA

ARRAUNLARIAK PREST !!

Trinauen tenporada dagoeneko hasia da

Aspaldi hasi ziren entrenatzen, azaroan edo, eta batel eta trainerilen tenporada amaitu ondoren, trinauen ordua ailegatu da; "ezkutuko" lana bukatu da eta hemendik aurrera emaitzek esango digute zer nolako tenporada osatzen duten. Hasiera batean behintzat esperantza onez agertu zaizkigu.

Baleike

Jende askok ez du jakingo duela zortzi hilabete hasi zirela entrenatzen. Hauetako entrenamendu baten ondoren harrapatu genituen hiru arraunlari: Felix Aizpurua, Angel Etxaniz eta Jokin Urkidi, beraien kontu txikiak jakin asmoz.

Talde polita

Tripulazio oso gaztea elkartu da aurten eta aipagarriena da gehienak zumaiaarak direla; batetik jubeniletatik jende asko igo da, eta bestetik lehendik gaztetan ibilitako jendea ere inguratu dute, "Joxebak gazte jende asko ekarri du arraunera" esaten digute. Beraien arteko giroa ere ederra omen da, aurten bueltatu den Jokinek aipatzen digunez "Nik ez nuen uste horrelako girorik zegoenik". Hau oso garrantzitsua da beti ere, hurrengo urteetan ere jendea animatu dadin.

Aurten ere *Luxia* izango dute entrenatzaile eta Joxeba patroji; baina arraunlarien artean buru egiten duena Juan Kruz Osa, *Xaxkate* omen degu, horrela aitortu digute hiru arraunlariak; errespetoa berak ezartzen omen du aldageletan. Aurten oso garrantzitsua da bloke bat egitea, oinarri bat ezartzea, hurrengo urteetan lantzeko.

Preparazio egokia

Aurten daramaten preparazioa aurreko urteetakoa baino hobea dela uste dute. Entrenamenduak gehiago zaindu dira eta sendagileak arraunlarien pisua asko kontrolatu du: grasa kopurua, dietak, etab. Gauza berdinak, baina era ezberdinean egin

dituzte aurtengoan; adibidez, pesak egiten pisu gutxirekin izugarrizko palizak hartu dituztela esan digute.

Sakrifizio hitza aipatu diegunean, neke eta zaindu beharrez ari ginelarik, "ez da hainbesteko sakrifizioa, gorputza jarri egiten dek" adierazi digute. Egunak izaten dituzte; batzutan xixko eginda iritxi eta hala ere entrenatu beharra izaten dute; lokalera iristean nekeak ahaztu egin behar omen dira.

Bertako kontuak

Hala eta guztiz, miraririk ez bada gertatzen behintzat, aurtengoan ere sponsor edo patrozinatorerik gabe arituko dira gure arraunlariak; eta



Gure arraunlariak hasiak dira Telmo Deun zaharraren motorrak berotzen!

 <p>KOSTA GAS</p> <p>GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK</p> <p>Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)</p>	<p>expert</p> <p>ELEKTROGAILUAK</p> <p>Mertxe Aizpurua</p> <p>expert eta Repsol-Butanoren Banatzaile Ofiziala</p>
--	---

 <p>SORGINA</p> <p>ARTISAUTZA</p> <p>Baltasar Etxabe, 2 behea Telefona: 143229</p> <p>20750 ZUMAIA</p>

hori, dudarik gabe, igerri egiten da, asko gainera. Adibidez, materiale berria erosteko aukerarik ez dute izan eta lehendik zeukatenarekin aritu beharko dute oraingoz; beste arraun taldeetan fibrazko untziak probatzen ari dira, baina 94ean behintzat ez dira Zumaiara iritsiko. Ale hau ateratzerako, kotxearen zozketa egina izango dute; ahal diren zulo gehienak estaltzeko balio izango al die behintzat!

Mobilean, banku mugikorrekotuzitan zer moduz moldatzen diren galdetu diegu eta arlo hau ez dela behar bezainbat zaintzen aitortu digute, "maixu egoki bat falta dek Zumaian". Duela gutxi neska batzuk ere hasi dira arraunean, baina aurtengo estropadetan ez dute parte hartzerik izan. Ea hurrengo urtean nola ibiltzen diren!

Azken urteetako beherakada

80ko hamarkada zoragarria izan zen; denok gogoratzen ditugu 84 eta 87ko Kontxako banderak eta urtero egiten ziren bandera bedeinkapenak. Baina zer gertatu zen ondoren? Justu instalakuntza berriak estreinatu zirenetik aurrera, beherakada nabarmena jasan zuen Zumaiak. Zergatik?

Gure lagunen ustez, "generazio baten amaiera izan huan, jende asko sasoi onian erretiratu huan, 24-25 urtekin". Kanpotik ere etorri zen jendea, baina ez zirudien konponbidea hori zenik.

Pekatu haundia egin omen da



Paretean dauden "trapu" horien antzeko gehiago ekarriko ote dituzte aurtengoan?

Zumaian, kanterarekin lan egokirik ez egitean. "Gazteak seniorretara ailegatuzian ez zegon segitzeko motibaziorik. Hiru urtetan hiru lagun bakarrik pasa gintuan" dio Angelek. Aurten 7 arraunlari igo omen dira. Trinaurako saltoa hasieran gogorra egin zitzaizela aipatu digute, baina gero erreza egin zitzaizela moldatzea.

Aurten zer?

Gustora agertu zaizkigu tenporadan orain arte egin duten lanarekin; "trainerila nibelatuak atera dizkiagu eta danok ere gustora aritu gera". Punta-puntan ez, baina hirurak aurre aldean ibili dira. Baina trinauan zer?

Aurten ere betiko seirak ibiliko dira aurrean: Orio, San Pedro, Donibaneko, Hondarrabia, Koxtape

eta Ondarru. Hauen atzetik izango da burrukarik haundiena eta Aita Marikoen hortxe egotea espero dute. Denboraldia nola joan den eta eraman duten preparazioa ikusirik, Felixen ustetan "lehengo urtian baino aukera gehio degu Kontxako estropetan sartzeko". Estropada hauek dira denboraldia neurtzen dutenak, "Kontxan sartziak tenporada salbatzen dik". Urte honetan estropada hau antolatu berri den LIGA horretan sartu ala ez eztabaidetan aritu dira.

Zumaiako afizioari

Jendea zai dago, banderak edo gutxienez emaitza onak noiz etorriko. "Bandera irabaztia kristona dek; Erandion irabazi genduanian nik jendia negarrez ikusi nian trinauan. Orduan sakrifizio danak ahazten dituk".

KALARI TABERNA JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

TXALAPARTA O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

Gazteak ere zai daude Kontxako egunean egunpasa eder bat egiteko prest. Parrandarako bai, baina arraunerako ez omen dira gazte gehiegi apuntatzen; hainbeste kirol aukeran izanda zaila bait da arraunean hastera.

Zumaian tekniko asko omen daude, moila inguruan ibiltzen diren zaharren artean batez ere. Herrian dabiltzanean, arraunlariak kontrolatuak egoten dira, gainera, "txikiteoan hasi orduko zaharrek bronka botatzen zigutek; gehiegizkoa dek".

Denboraldia aurrera joan ahala, saiatuko gera informazio gehiago biltzen. Bien bitartean, AUPA TELMO DEUN!!!



Felixek striptis bat eskeini zien gure irakurleei, bere sasoia agerian utziz.

UDAKO KIROLAK

Aurten parapente ikastaro bat degu nobedade nagusiena


Urtebete gehiagoz uztailean berriro ere uda kirolentzako tartea egongo da ume eta hain ume ez direnen gozamenerako.

Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz eta Zumaiaiko Udalaren babespean, azken urteetan aurrera eramanez uda kirol hauek eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

Eskeiniko diren ikastaroak honako hauek izango dira: piraguismoa, arraunketa, mendizaletasuna, mendiko bizikleta, tenisa eta igeriketa. Igeriketako ikastaroa Azpeitiako igerilekuan emango da. Aurreko urteetan, ikastaro hau Itzurungo hondartzan izanik, igeriketa irakatsi baino gehiago, denborapasa atsegin bat pasatzea zen. Oso zaila zen igeri egitea olatuen eta jende guztiaren artean; hau izan da ikastaro hau aldatzearen arrazoia.

Parapente ikastaroa

Uda kirol hauetan ordea, berritasun azpimarragarriena parapente ikastaro bat egongo dela da. Hau uztailean eta abuztuan izango da Arrua inguruan eta bertan parte hartzeko hamazazpi urte baino gehiago edukitzea eskatzen da. Ohizko kirol hoietatik kanpora, kutsu abentureroko



Parapente ikastaroa Arruan izango da.

kirol eder hau probatu nahi duen edonork badaki beraz nora jo... Baina azkar ibili, uztailean zein abuztuan, hilabete bakoitzean, hamasei plaza besterik ez baitaude.

Kirol bakoitzean monitore kapazitatuak daude. Ikastaroen prezioei dagokienez, bostehun eta 3.500 pezeta artean daude, parapentekoa ezik.

Urtero bezala, jende askok parte hartzea espero da, bakoitzak gustokoen duen kirolen batetan disfrutatzekeo posibilitatea edukiz. Ez ahaztu! helduek ere lekutxo bat badezue nahi izanez gero behintzat.

**TXOKO
TABERNA**

Artadi auzoa
ZUMAIA

**Taosa**
SURF DENDA

- * Bainujantziak
- * Surfeko tablak
- * Poliesterrezko plastifikatzeak
- * Erropetako serigrafia
- * Toallak
- * Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

Literaturaren arlo honetarako Azpeitia aldetik neska gazte baten honako poema hau iritsi zaigu intsumiso bati eskeinia. Era honetara, gutako bakoitzak geure barnean daramagun poesia jendeari azaltzeko aukera dugu atal honetan.

Beraz, anima zaitez!

INSUMISO BATI

*Ahantzi behar haut baina oroitzapenek
ezinaren bidetik naramatek.
Luzeak dituk egunak hi gabe;
eternuak, minutu zein segunduak.
Horrelakoetan izkiriatuaz lasaitzen saiatzen nauk
nahiz eta lortu ez.
Ene poemek ez diate oraindio hire hutsunea betetzen ikasi.
Nola ote hago?
Gogoan al dituk nire hitz, irrifar, musuak,...?
Hire zeldako iluntasunaren argi izan nahi niake
baina argitzeko sentitu behar haut
eta jada kasik ez haut sentitzen.
Nire izatearen zati bat
heurekin eraman zidatean.
Gaur hutsa negok.
Ez dizkiat ulertzen bakea gorai patu eta
gerra egiten diaten militarifaltzuak. Hipokritak!
Bala zikin batez orbaindu zidatean bihotza ligandik aldentzean.
Ondoren eskuak garbitu ei zizkiaten.
Azkenean, fusil zamatsu batek gure artekoa saihestea
nozitu behar izan diagu eta irratian
hire izena entzute hutsak,
baztertu hituan armak hartu eta norbait garbitzeko gogoa
pizten zidak.
Baina burua makurtuaz negarrari ematen zihoa.
Zakurraren ahausiak ere ez dituk berdinak
hire presentziarik gabe...
Gure etxean ez diagu aise ahantziko aurtengo neguan
eta gaur ere hemen negok,
gauero egoten ginen legez
lehiotik izarrei so eginez. Fleuk ere ikusiko dituk
begiak itxi ezkerero...
Oheratzera nihoak hirekin amets egiteko bederen,
esnatzean eguneroko amets gaiztoari aurre egin behar zihoa eta.*

Maitane Elorza

erakusketak

Erakusketak Foronda Kultur Etxean izango dira, eta ondorengo ikustorduen barru:

Egunero 6,30etatik 8,30etara

• **MANUEL IGLESIAS** eta **PUERTO IGLESIAS** anaiarriben eskultura eta pintura bilduma izango dira ikusgai Uztailaren 16tik 31ra.

• **ZUMAIAKO IV. ARGAZKI LEHIAKETARA** aurkeztutako lan onenen bilduma ere dagoeneko ikus daiteke, joan den Ekainaren 25ean hasi eta Uztailaren 10ean amaituko den erakusketa batetan.

UZTAILEAN, KALEAREN ERDIAN...

Aurten ere udaran sartu orduko, hemen ditugu kultur etxeak antolatu ohi dituen hainbat ekintza, guztiok kalearen erdian goza ditzagun, udako giroari dagokion bezala. Beraz, ez galdu aukera aparta hau, izarrei begira ala eguzkitan zauden artean, kontzertu eta antzeko hauetaz gozatu ahal izateko.

Uztailak 2, larunbata

Goizeko 11etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8'30etara, Eusebio Gurrutxaga plazan: **ARTISAU AZOKA**. Egurra, larrua, buztina, otargintza... bertan lanean ikusteko aukera.

Uztailak 9, larunbata

Eusebio Gurrutxaga plazan, arratsaldeko 18'30etan, **BIHAR txontxongilo taldearen** antzezlan bikaina: *Salba ditzagun baleak*.

Uztailak 16, larunbata

Zumaiako Musika Tailerrak antolatuta, Debako *Deband* taldearen **kontzertua** izango dugu, Zumaiako talde batekin batera.


Lekua eta ordua garaiz adieraziko dira.

Uztailak 24, larunbata

Eusebio Gurrutxaga plazan, gaueko hamaiketan, Zumaiako Musika Bandaren Kontzertua izango da.



Luisi Aldaburu dugu egitarauaren azalaren egilea.



AIZPURUA

LIB
R
U
D
E
N
D
O
P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAI A

Opari artikulak

algorri

Lurrindegia



Erribera kalea, 5 ZUMAI A Telefonoa : 862398

**ZUMAIAKO VII. ARTE
ERAKUSKETA**

UZTAILA: 9 - 24 ra.

**- ARTE EDERREN
FAKULTATEKO
IKASLEAK (PINTURA)**

- Nagore Agirre
- Carlos Galarraga
- Patxi Gallego
- Ruben Gomez
- Iñaki Lazkoz
- Jon Manzisidor
- Nerea Zapirain

**PROFESIONAL
ZAHARREAN**

- ARTE TAILERRA:

26 - 27 - 28

Gaia: Zumaiako ingurua.
Edozein pertsonak har dezake parte.

**UZTAILAK 29tik
ABUZTUAREN 2ra
ARTE TAILERRAREN
ERAKUSKETA.**

**UDAKO TXARTEL
LEHIAKETA**

Ekaineko zenbakian azaltzen zen bezala, 1994.eko Abuztuko jaietarako eskuprogramaren azala aukeratzeko, lehiaketa antolatu da, oinarri hauekin:

1. Zumaiar orok har dezake parte, bakoitzak gehienez 3 lan aurkeztuz.

2. Gaia eta txartelerako testua:
UDAKO FESTAK 94

3. Teknika: librea

4. Neurriak: Din A-3; 297 x 420 mm.

5. Epea Uztailak 8, ostiralez itxiko da; txartelak Forondan aurkeztuko dira, egilearen datuak zorro itxi batean emanaz.

6. Epaimahaia Festa Batzordeak osatuko du, adituen iritzia eskatuz. Erabakia prentsez kaleratuko da. Txartel irabazlea Udalarentzat izango da.

7. Irabazlearentzat saria: 60.000 pezta.

ANIMA ZAITEZ

!!!

**SAHATSA DANTZA
TALDEA ZUMAIAN**

Datorren Uztailaren 23an Sahatsa Dantza Taldeak aurtengorakoprestatu duen egitaraua aurkeztuko du Zumaiian.

1976. urtean sorturiko Urrestillako talde honek, Bartzelonako Eta Inglaterrako txapelketa batzutan arrakasta galanta lortu du, bertako BBC telebista kateak erreportai batera gonbidatu duelarik.

Aurtengo egitarauetan Sahatsak, aintzinako dantzak eta koreografia berriak nahastu ditu mugimenduz beteriko ikuskizuna osatu nahian. 60 lagunez osaturiko taldea izateak, ia geldiunerik gabeko emanaldia betetzea erraztu dio.

Dantzak, herrialde desberdinen arauera bildu dituzte, hauen berezitasunak eta bitxikeriak ikuslegoari ezagutu arazi nahian. Hauen artean 10 mutilez osaturiko giza-dorrea eta pastoraletatik harturiko elementuak aurkitzen dira.



MARKARIK EZAGUNENAK

PREZIORIK ONENETAN

Aita Mari Auzategian (Garate Auto-Eskolaren aurrean)

ZUMAI



EL INQUILINO COMUNISTA

Gero eta ezagunagoa dugun Getxotar Rock taldea

El inquilino comunista Getxoko Rock talde bat dugu. Herri honek dituen laguntzak medio, dagoeneko talde bat baino gehiago dugu kalean beraien ilusio eta espresio etab. azaltzeko asmoz.

Baleike

Aipagarrienak (blues, jazz, folk), konkurtsoak eta udalaren laguntzaren bidez, musika giroa erabat bultzatzen dute. Nahikoa da talde bakar batek arrakasta lortzea herri txiki batean bertako bazter guztiak nahasteko edo nik esango nukeen bezala "eskola" bat sortzeko. Honekin zera esan nahi dut: jendeak interes gehiago hartzen duela musika munduaz, jende berria hasten dela musika egiten, taldeak beraien artean konpetitiboago bihurtzen direla... etab. Zenbait udalek honen ejenplua hartu behako lukete zeren honek dakarren gauza bakarra era guztietako musiken aberastea da.

Inglesez abesten dute, beraien talde maitatuenek bezala

Garai honetan musika jasaten ari den berrikuntza nabari horien adibide ditugu "inkilinoak".

Javi, Juan, Alvaro eta Santik osatzen dute laukote zoragarri hau. Beraien influentziak oso garbiak dira; Sonic Youth, Nirvana, Hüsker Dü... etab. Rockaren munduan Underground-en barruan sartu ditzakegunak, nahiz eta beraien ikuspuntuak nagusitu egiten diren, kitarreo sendoez, distortsio zaindu eta melodia garratez betetzen dituzte beraien abestiak.

Inglesez abesten dute, beraien talde maitatuenek bezala, ez beste edozein hizkuntza baztertzen dutelako, baizik eta musika eta mugimendu honi dagokionez, elkar lotura hori ongi borobiltzen baitute, beren emaitzak lortzeko.

Komertzialitateari uko egin diote, arrazoiak beraien jakingo dituzte

Bai Euskal Herrian eta bertatik kanpo Rock "alternatibo" delakoan oso talde maitatua dugu El Inquilino Comunista eta horren adierazgarri estilo honen barruan errege diren Sonic Youth banda amerikarrak, iaz Bartzelonan eta Madrileko ekitaldietan getxotarrak gonbidatu zituzten beraienkin teloneatzeko. Pavement-ekin batera Txitxarron egon ziren duela bi urte.



Getxon ere komunistak badaude..

**IHINTZA
TABERNA**

Ortega y Gasset, 3
Tfnoa: 860472
ZUMAIA

**ITZURUN
KIROLAK**

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKA

Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

92-an eman ziren ezagutzera, maketa formatotik kanpo grabatzeko aukera izan zutenean.

Radiation Records-en estudiantan eta Getxoko Kultur Etxearen laguntza lasoaz "Extended Play" izeneko single bikoitz bat ateratzea lortu zuten. Single hau bost abestiz osatua zegoen "Speed limit" eta "Get out" direlarik aipagarrienak. Lan bikain hau begi onez hartu zuen kritikak. Laster etorri zen LP eta CD formatoko lan luze bat. "Brick" izeneko korte oso elektriko, indartsu eta instrumentalez hasten zaigu lan hau. 10 abesti sendo eta mespretxa ezinak ditu, hauen artean aipagarrienak "Die shanta" eta "Moonwalk" direlarik. Taldearen hurrengo azalpena single bat du, 2 bertsio Breeders -en "Metal man" eta Codeine-ren beste bat dutelarik.

Diskaren bestaldean aurreko laneko "Domestic lies" (Radio Euskadiko *La Jungla Sonora* irratsaioan grabatua) abesti famatua aurkeztu ziguten. Azkenengoa 45 reboluzioetara datorren 5 abesti berrik osatzen dute. Beraien asmoa ez dirudi radio formula desberdinen artean musika tipikoa egitea denik.

Rockaren krisi garai hauetan beste abiapuntu desberdin eta irekiago bat ematen saiatzen den talde honek dagoeneko 2 multinazionaleri ezetza eman die. Komertzialitateari uko egin diote, arrazoiak, beraiek bakarrik jakingo dituzte. Kontuak kontu beraien musika gero eta goraiatuagoa dela argi dago.

MAKETAK


DEABRUAK TEILATUETAN "Endreduan"

Euskal taldeak hurbil arazi eta bultzatzeko asmotan aldizkari hau bere musika atalean hilean behin maketa bat eskeintzen saiatuko da.

Hilabete honetan Tolosako talde bat ezagutzeko aukera izan dugu. *Deabruak Teilatueta*n izeneko talde hau, euskal taldeak tendentziak aldatzen eta era guztietako musika nahaste desberdinak egiteko gai direla erakusteko adibide garbia da. Berrikuntza handirik aportatzen ez badute ere, bere estiloak interes handia sortarazten du. Rock nahasi eta nahiko astindu bat, melodia lasaia punteo bikainez elkartuz eta

ahots euskaldun fin baina pertsonalitate handia duena apaingarri gisa, maketa honek zeresan asko duela nabaria da.

Iñigo bateriak, Aritz ahotsak, Joni baxuak eta Imanol gitarrak (azken bi hauek anaiak) osatzen dute banda eta beraien abestietan maitasuna, gazteon arazoak, kaleko arazo sozialak eta zergaitik ez, beraien ametsetaz etab. mintzo zaizkigu. Sei abesti dituen "Endreduan" izenpean ateratako maketa honek etorkizun handia edukiko duelakoan gaude, horrelako talde bikainak hori baino gehiago merezi du eta.



Maketa salgai dago Zumaia hainbat tabernetan.



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA

*Jesuskoa
Faletxea*



Txeca 86 17 39 • Cibika - Zumaia


JOSAKRIS

OINETAKOEN

KONPONK ETA

Ortega y Gasset, 2
Telefonoa: 862025
20750 ZUMAIA

ABARASKA



Erantzun guztiak sei letrakoak izanik, zenbakiaren inguruan kokatu behar dira, erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doalarik beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.

1. Gazte arra.
2. Damua erakutsi.
3. Zaborra.
4. Bular muturrak.
5. Egurzati errea.
6. Esku itxi.
7. Arazoak.
8. Ezagutzen duzu.
9. Ikasten iharduten duena.
10. Higuinak.
11. Bazaude.
12. Mea beltza.
13. Barreak.
14. Musika tresna.
15. Insektu mota.
16. Jaurtiketak.

S ukaldaritzza

Arrain Pastela

Axier Irigoien

Osagaiak (molde batentzako):

- legatza 500gr
- 8 arraultze
- tomatea 250 gr
- litro erdi nata
- letxua

Salsa rosa egiteko osagaiak:

- maionesa
- ketchup
- koñaka
- naranja zumua

Prestaketa:

Legatza egosi eta hozten jarri ondoren, hezur guztiak kenduko dizkiogu. Arraultzeak, tomatea eta arraia batidoratik pasako degu, segidan nata bota eta berriro batidoratik pasa behar da dena ondo txikitu arte. Gatza eta piper hautsa bota eta moldea koizpetatuko degu, ogi arrailatua botaz pastela ez pegatzeko eta bertara lehen egindako nahasketa botako degu.

Labera sartu "bainu marian" gutxi gora behera ordubete eskas. Rodajetan aurkeztuko degu letxua eta salsa rosarekin lagundurik.

Oharra:

Legatza erabili beharrian beste arrainen bat erabiltzea aukeran dago.



ZUMAIako INSTITUTUA

Aita Mari Auzategia, z/g

20750 - ZUMAIA

86 08-09/86 08 10



HARREMANAK

Mutil alaia eta jatorra bazara eta gaizki pasatzen ari, dudik gabe lasai lasai idatzi neri. Nere helbidea: Iratxe Martinez Osa, Basadi 7A 4-5 Zure zai naukazu!!

OHARRAK

Zumaiako AEK-k irakasleak behar ditu hurrengo ikasturterako. Interesatzen bazaizu, dei ezazu 143103 telefonora eta informatuko zaitugu.

AGURRAK

Koka Kola hiltzaile!
Garibaldi iraultzaile!

Igandero gorriaz blai egiten diren batzuen partez, agur bero bat era berean ibiltzen den kuadrilla bati. (Poteadoras domingueras).

Zein da Zumaiako hegaztirik preziatuena?

Kartutxoak Bilbon erosi ditugu eta hamabiko handiak prest daude. Batida bat antolatu nahian gabiltza. Pasea non? Erribera kalean, noski!

Laister: Batxupa potruak!

KLASEAK

Klase partikularrak ematen ditugu OHO, BUP, COU, REM mailetan, Biologia, Mate, Kimika, Fisika etab.

Tlf: 143044 (Imanol eta Josu)

Klase partikularrak ematen ditugu OHO mailan. Interesik badezu deitu:Tlf zenbaki honetara: 861695 (Gorka eta Ane)

Gutunak

REGGAEMANIA

Badira pila bat urte gureganaino iritsi zirela afro-reggae erritmoak, eta esan behar dut niri ere atsegin zitzaizkidala.

Orain "bakalau musika" (puaj!) jarri duk modan, baina zenbait tokitan reggeak ere fuerte jo dik. Bere ile narratsak, begi dizdiratsu eta kannabis kolokoiakin oso martxa ona eta alaitsua jartzen dute reggae taldeek, baina egunero aitzen baduk hemen, han ta bestean, azkenerako

erabat nazkatzen haiz; *eske ya está bien!* Hau gehiegi da! Too much txo!

Honekin ez diat esan nahi anti-reggaea naukela edo reggaea ez dudala gogoko baino beste musika mota asko daude.

Gazteleraz esaten duten bezala "lo bueno si breve, dos veces bueno". Eta hori ba...

J.M.A.

NAN: 72.443.976.

SEXUA EZ DA MORBOA

Zorionak! Asko gustatu zait atera duzuen aldizkaria. Animo eta hurrengo aleetan mesedez jarraitu sexuari buruz zertxobait hitzegiten. Ez da morboa, benetan. Guztiz beharrezkoa da zeren Zumaian kriston problema dago. Hainbat eta hainbat *guaperasek* pentsatzen du emakumeak orgasmoa lortzen due-la... **GIZONAK EIAKULATZEN DUENEAN!** Inkredibol bainan egia. Ai ama.

Loti Lu


Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**



Solozabal autoeskola

Gidariak lantzen onenak



Gidatzeko karnet guztiak


- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
 - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 - Bis

Tel. 861416 • Fax: 861416

ZUMAIA

SAGA



ESTUDIO eta DISEINUA

PVC ETA ALUMNIOZKO ATE, LEIHO ETA PERTSIANAK

ARMAIRU ENPOTRATUAK ■ BAINU MANPARAK ■ TOLDOAK

Patxita Etxezarreta kalea, 13 behea
20750 ZUMAIA - = - tel-fax: 943 - 86 14 78